


57.

Tolosako
abesbatza
lehiaketa

CERTAMEN CORAL DE TOLOSA
CONCOURS CHORAL DE TOLOSA
TOLOSA CHORAL CONTEST

29 / 10 / 2026
01 / 11 / 2026




57.

Tolosako
abesbatza
lehiaketa

CERTAMEN CORAL DE TOLOSA
CONCOURS CHORAL DE TOLOSA
TOLOSA CHORAL CONTEST

29 / 10 / 2026
01 / 11 / 2026





la la
la la la
la la la
la la la
la

antolatzailea / organizador



Tolosako Ekinbide Etxea
Centro de Iniciativas de Tolosa

babesleak / patrocinadores



Ohorezko batzordeak / Comités de honor

Ohorezko Lehendakaria

Presidente de honor

.....

Imanol Pradales Gil

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

Batzorde artistiko-betearazlea

Comité artístico-ejecutivo

.....

Xabier Ormazabal

Ohorezko Batzordea

Comité de honor

.....

Eider Mendoza Larrañaga

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahaldua

Nagusia

Ibone Bengoetxea Otaola

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta

Hizkuntza Politika Sailburua

Andu Martínez de Rituerto Arregi

Tolosako Alkatea

Batzorde artistikoa

Comité artístico

.....

Basilio Astúlez

Enrique Azurza

Javier Busta

Josu Elberdin

Xabier Sarasola

Esteban Urzelai

Jaialdiko batzordeak / Comités del festival

Zuzendaritza Dirección	Xabier Ormazabal	Argazkiak Fotografía	Ura Iturralde
Koordinazio Orokorra Coordinación general	Imanol Aramendi Raquel Etxabe Aitor Imaz Amaia Perales	Audio Grabaketa Grabación audio	Mikel F. Krutzaga
Administrazioa Administración	Maddi Urtzelai Beñat Redondo	Audio aukeraketa Elección audio	Aitor Imaz Esteban Urzelai
Harreman publikoak Relaciones públicas	Daniel de la Puente	Diseinu grafikoa Diseño gráfico	Pablo Barredo
Komunikabideak Medios de comunicación	Rosa Izquierdo	Otorduak Comidas	Mónica Alfaro José Luis García
Aurkezleak Presentadores	Aitor Elduaen David Beramendi Maddi Castro Gorka Otaegi Nerea Pikabea Oihane Perez Igone Urtaza	Entzulego saria Premio del público	Amaia Perales
Abesbatza Laguntzaileak Acompañantes coros	Laura Rudel (koordinatzailea) IES Zubiri Manteo BHI-ko ikasleak	Eszena koordinazioa Coordinación escena	Lorea Martínez Iara Ugartemendia Lierni Mendizabal Jon Sierra Asier Isasti Garazi Mendizabal Irati Insausti Oihana Andueza Danel Martínez Danel Izquierdo Itsaso Andueza Mikel Sierra

Laguntzaileak / Colaboradores

INSALUS • Aita Frantziskotarrak • Tolosako Elkarte Gastronomikoak •



aurkezpena

OHORE HANDIA DA, TOLOSAKO EKINBIDE ETXeko PRESIDENTE GISA, TOLOSAKO ABESBATZEN NAZIOARTEKO LEHIAKETAREN EDIZIO BERRI BATI ONGIETORRIA EMATEA, URTEZ URTE TOLOSA ETA TOLOSARRAK NAZIOARTEKO MAPA KULTURAL ETA MUSIKALEAN KOKATZEN DITUEN GERTAKIZUNA.

8

EGUN HAUTAN, HAINBAT HERRIALDE, KULTURA, HIZKUNTZA ETA TRADIZIOTATIK DATOZEN ABESBATZEN TOPAGUNE BIHURTZEN DA GURE HERRIA. MUNDUA ULERTZEKO ETA BEGIRATZEKO MODU EZBERDINAK, MUSIKAN HIZKUNTZA KOMUNA AURKITZEN DUTENAK. MUSIKAK EZ BAITU ITZULPENIK BEHAR. KANTATZEAREN, ENTZUTEAREN ETA PARTEKATZEAREN GOZAMENAK BATZEN GAITU ETA BESTEA DESKUBRITZEKO AUKERA EMATEN DIGU, BESTE KULTURETARA HURBILTZEKO ETA LEHIAKETATIK HARATAGO IRAUTEN DUTEN LOTURAK SORTZEKO.

AURTEN, GAINERA, ONGIETORRI BEREZIA EGINGO DIEGU HAURREN ABESBATZEI, GURE ETORKIZUNA IRUDIKATZEN DUEN BELAUNALDI BERRI BATEN PROTAGONISTAK BAITIRA. HORIENGAN DAGO HAINBESTE URTETAN ERAIKI ETA GOZATU DUGUNAREN JARRAIPENA: MUSIKA KORALAREKIKO MAITASUNA, PERTSONA ETA KULTUREN ARTEKO TOPAKETA ETA MUSIKAK TRANSMITITZEN DITUEN BALIOAK. HAIK JASOKO DUTE GURE ONDAREA ETA HAZTEKO AUKERA IZANGO DUTE.

HORI GUZTIA EZ LITZATEKE POSIBLE IZANGO GUREKIN DAUDEN ETA, GUK BEZALA, KULTURAN ETA MUSIKAN INBERTITZEA GIZARTE HOBE BATEAN INBERTITZEA DELA USTE DUTEN ERAKUNDE, ETA ENTITATEEN BABESIK ETA KONFIANTZARIK GABE.


GUZTIEI, ETA LEHIAKETA HAU POSIBLE EGITEN DUTEN PERTSONA GUZTIEI, GURE ESKERRIK BEROENAK.

ETA MUNDUKO HAINBAT LEKUTATIK TOLOSARA DATOZEN ABESBATZA, ZUZENDARI, MUSIKARI, LAGUNTZAILE ETA BISITARIEI, ESKERRIK ASKO ZUEN MUSIKA PARTEKATZEKO GURE HERRIA AUKERATZEAGATIK.

Ongi etorri Tolosara!

Ongi etorri topaketa honetara!

presentación



ES UN HONOR, COMO PRESIDENTE DEL CENTRO DE INICIATIVAS DE TOLOSA, DAR LA BIENVENIDA A UNA NUEVA EDICIÓN DEL CERTAMEN CORAL DE TOLOSA, ACONTECIMIENTO QUE AÑO TRAS AÑO SITUÁ A TOLOSA, Y A LAS Y LOS TOLOSARRAS EN EL MAPA CULTURAL Y MUSICAL INTERNACIONAL.

EN ESTOS DÍAS NUESTRO PUEBLO SE CONVIERTE EN PUNTO DE ENCUENTRO DE COROS PROCEDENTES DE DIFERENTES PAÍSES, CULTURAS, LENGUAS Y TRADICIONES. DIFERENTES MANERAS DE ENTENDER Y MIRAR EL MUNDO QUE ENCUENTRAN UN LENGUAJE COMÚN EN LA MÚSICA. PORQUE LA MÚSICA NO NECESITA TRADUCCIÓN. EL PLACER DE CANTAR, ESCUCHAR Y COMPARTIR NOS UNE Y NOS PERMITE DESCUBRIR AL OTRO, ACERCARNOS A OTRAS CULTURAS Y CREAR VÍNCULOS QUE PERDURAN MÁS ALLÁ DEL CONCURSO.

ESTE AÑO, ADEMÁS, DAREMOS UNA BIENVENIDA ESPECIAL A LOS COROS INFANTILES, PROTAGONISTAS DE UNA NUEVA GENERACIÓN QUE REPRESENTA NUESTRO FUTURO. EN ELLOS ESTÁ LA CONTINUACIÓN DE LO QUE HEMOS CONSTRUIDO Y DISFRUTADO DURANTE TANTOS AÑOS: EL AMOR POR LA MÚSICA CORAL, EL ENCUENTRO ENTRE PERSONAS Y CULTURAS Y LOS VALORES QUE TRANSMITE LA MÚSICA. ELLOS RECIBIRÁN NUESTRO LEGADO Y TENDRÁN LA OPORTUNIDAD DE CRECER.

TODO ESTO NO SERÍA POSIBLE SIN EL APOYO Y LA CONFIANZA DE LAS INSTITUCIONES Y ENTIDADES QUE NOS ACOMPAÑAN Y QUE, COMO NOSOTROS, CONSIDERAN QUE INVERTIR EN CULTURA Y MÚSICA ES INVERTIR EN UNA SOCIEDAD MEJOR.

A TODOS, Y A TODAS LAS PERSONAS QUE HACEN POSIBLE ESTE CONCURSO, NUESTRO MÁS SINCERO AGRADECIMIENTO.

Y A LOS COROS, DIRECTORES, MÚSICOS, COLABORADORES Y VISITANTES QUE VIENEN A TOLOSA DESDE DIFERENTES PARTES DEL MUNDO, GRACIAS POR ELEGIR NUESTRO PAÍS PARA COMPARTIR VUESTRA MÚSICA.

¡ Bienvenidos a Tolosa !

¡ Bienvenidos a este encuentro !

aurkibidea / índice / index

egitarau orokorra
programa general
general programme

or. / pág. page
12 55

urria / octubre / october

kontzertu berezia
concierto extraordinario
special concert

24 larunbata
 sábado

or. / pág. page
13-15 56

31 larunbata
 sábado

or. / pág. page
16-17 57

lehiaketako abestiak
obras a concurso
works in the contest

29 osteguna
 jueves

or. / pág. / page
27

30 ostirala
 viernes

or. / pág. / page
30

31 larunbata
 sábado

or. / pág. / page
29-30

epaimahaia
jurado
jury

or. / pág. page

Esteban URZELAI	19	58
Jurgis CĀBULIS	20	58
Petra GRASSI	21	60
Haruko KUBAWARA	22	60
Jordan ŠRÁMEK	23	59
Helene STUREBORG	24	59
Ivan YOHAN	25	60

57.

Tolosako abesbatza lehiaketa

CERTAMEN CORAL DE TOLOSA
CONCOURS CHORAL DE TOLOSA
TOLOSA CHORAL CONTEST

ganbera abesbatzak coros de cámara chamber choirs

	<i>or. / pág.</i>	<i>page</i>
Ensemble Vocapella Limburg	32	62
Zwozwoeins Men's Choir	33	62
The Academic Choir Tone Tomšič	34	63
Chamber Choir Ipavska	35	63
Jakarta Youth Choir	36	64
Vox Angelica Choir	37	64
Coro Musicanova	38	65
Ewha Womans Choir	39	65
Mixed Choir Juventus	40	66
The Epiphoni Consort	41	66

haur abesbatsak coros infantiles children's choir

	<i>or. / pág.</i>	<i>page</i>
Bulgarian National Radio Children's Choir	43	68
Pequeñas Voces de La Alhambra	44	68
Saint Angela Choir	45	69
Kajetán Children's Opera Choir	46	69

lehiaketaren historia historia del certamen history of the contest

or. / pág. / page

47-52

abesbatza kantuaren europar sari nagusia gran premio europeo de canto coral european grand prix for choral singing

or. / pág. / page

70

urria / octubre

Larunbata / sábado
Jesuitinen Kaperan
Capilla de las Jesuitinas
19:00

24

Pablo Sorozabalen korurako lanak CD BERRIAren aurkezpen-kontzertua KEA Ahots Taldearen eta EASO Abesbatzaren eskutik, Marco Socías gitarrajolearen parte hartzearekin. Aldi berean Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek bultzatuta PABLO SOROZABAL, KORURAKO LANA liburuaren aurkezpena egingo da.

CONCIERTO EXTRAORDINARIO a cargo del Grupo Vocal KEA, el Coro EASO y el guitarrista Marco Socías como PRESENTACIÓN del NUEVO CD de Música Coral de Pablo Sorozabal impulsado por el Grupo Vocal KEA. Asimismo se presenta la edición del libro PABLO SOROZABAL: MÚSICA CORAL impulsado por la Confederación de Coros del País Vasco.

Osteguna / jueves
Teatro Leidor Antzokia
19:00

29

1. saioa: abesbatza Lehiaketan Polifonia eta Folklore modalitateetan parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia.

1ª sesión: actuación de los coros de cámara participantes en las modalidades de Polifonía y Folklore.

Ostirala / viernes
Teatro Leidor Antzokia
19:00

30

2. saioa: abesbatza Lehiaketan Polifonia eta Folklore modalitateetan parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia.

2ª sesión: actuación de los coros de cámara participantes en las modalidades de Polifonía y Folklore.

Larunbata / sábado
Teatro Leidor Antzokia
11:30

31

3. saioa: abesbatza Lehiaketan Haur Abesbatzen kategorian parte hartuko duten abesbatzen emanaldia.

3ª sesión: actuación de los coros participantes en el concurso infantil.

16:00

4. saioa: abesbatza Lehiaketan Polifonia eta Folklore modalitateetan parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia.

4ª sesión: actuación de los coros de cámara participantes en las modalidades de Polifonía y Folklore.

Iglesia
San Frantzisko
Eliza
19:00

Abesbatza-kontzertua SOFIA VOKALENSEMBLE (Suedia) abesbatzaren eskutik. Abesbatzak Arvo Pärt musikagilearen 'Kanon Pokajanen' lana interpretatuko du.

Concierto extraordinario a cargo del Coro SOFIA VOKALENSEMBLE de Estocolmo, Suecia.

El coro interpretará el 'Kanon Pokajanen' de Arvo Pärt.

azaroa / noviembre

Igandea / domingo
Teatro Leidor Antzokia
11:00

1

Lehiaketaren Amaiera Saioa eta sari-banaketa.

Sesión de Clausura del Certamen Coral y entrega de premios.

Larunbata / sábado
Jesuitinen Kaperan
Capilla de las Jesuitinas
 19:00

kontzertu
 bereziak **conciertos**
 especiales



Presentación del CD

PABLO SOROZABAL CHORAL WORKS II

CDaren aurkezpena

KEA Ahots Taldeak, Enrique Azurzaren zuzendaritzapean, koru mistorako eta ahots zuritarako maisu donostiarraren obra koralaren lehenengo atalari ekin zion 2024an. 2026an, bigarren CDa grabatzeari ekin dio. Gaur aurkeztuko da, eta Sorozabalen lan koralari ere eskainia dago, Marco Socías (gitarra) eta Easo Abesbatzaren eskutik (azken hori bere ahots grabeetako obra batzuen eskaintzailea izan zen eta).

Bigarren CD hau, lehenengoa bezala, Donostian grabatu zen IBS Classical diskoetxearentzat, musika klasikoaren panoramako ezagunenetakoa.

Pablo Sorozabal (1897-1988) XX. mendeko euskal konpositore garrantzitsuenetako bat da. Zarzuelen eta musika eszenikoaren konpositore gisa izan duen jarduera garrantzitsuak, hala ere, koru-lan askoren konpositore eta moldatzaile gisa egindako lana eklipsatu du. Lan horiek esanguratsuak dira kopuruagatik (40 bat), baina, batez ere, musika-kalitateagatik eta interes artistikoagatik.

Sorozabalek ez zituen inoiz bere sustriak ahaztu eta biziki maite zituen euskal folklorea eta Donostiako Orfeoien tiple bezala txikitatik ezagutu zuen koru tradizioa. Euskal abesbatzen munduarekin duen lotura nabarmena da: Easo Abesbatzarekin, Beasaingo Loinatz Abesbatzarekin edo desagertutako Maitea Abesbatzarekin (ahots berdinekoa) izan zituen kolaborazioak nabarmendu behar dira, baita Tolosako Abesbatzen Lehiaketarekin ere. Izan ere, bertako pregolari izan zen eta bere konposizio bat eskaini zion, Lili pollit bat, derrigorrezko lana izan zena. Pasio horren emaitza dira korurako egindako lanak (a capella edo instrumentuz lagunduta), gehienak euskal doinu edo testu herrikoietan oinarrituak.

KEA Vocal Ensemble, bajo la dirección de Enrique Azurza, abordó en 2024 una primera entrega de la obra coral para coro mixto y de voces blancas del maestro donostiarra. En 2026 acomete la grabación del segundo CD, que hoy se presenta, dedicado también a la obra coral de Sorozábal de la mano de Marco Socías (guitarra) y Easo Abesbatza (quien fue dedicataria de algunas de sus obras para coro de voces graves).

Este segundo CD, al igual que el primero, ha sido grabado en Donostia para el sello discográfico IBS Classical, uno de los más reconocidos del panorama de la música clásica.

Pablo Sorozabal (1897-1988) es uno de los compositores vascos más importantes del S. XX. Su importante actividad como compositor de zarzuelas y música escénica ha eclipsado, no obstante, su labor como compositor y arreglista de un importante número de obras corales, a capella o con acompañamiento, significativas por su número (unas 40) pero sobre todo por su calidad musical e interés artístico.

Sorozabal nunca olvidó sus raíces y amaba profundamente el folklore euskaldun, así como la tradición coral que él mismo conoció desde niño como tiple del Orfeón Donostiarra. Su conexión con el mundo coral vasco es notoria: basten destacar sus colaboraciones con el Coro Easo, la Coral Loinatz de Beasain, o la desaparecida Coral Maitea (de voces iguales), así como con el Certamen de Coros de Tolosa del que fue pregonero y al que dedicó una de sus composiciones, Lili pollit bat, que fue obra obligada. Fruto de esta pasión son sus trabajos para coro (a capella o acompañado de instrumentos), la mayor parte de ellos basados en melodías o textos vascos populares.

INTERPRETEAK / INTÉRPRETES

KEA Vocal Ensemble

Enrique Azurza, Zuzendaria / Director

Easo Abesbatza

Gorka Miranda, Zuzendaria / Director

Marco Socías, Kitarra / Guitarra

Aitor Garitano, Tenorea / Tenor

Zuhara Etxabe, Sopranoa / Soprano

Info gehiagorako / Más información

www.keavocalensemble.com

Laguntzaileak / colaboradores:




EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



FITXA TEKNIKO / FICHA TÉCNICA

Mario Larena: edizio kritikoa, ikerketa, eskuizkribuen erkaketa eta zuzenketa musikalak / edición crítica, estudio, cotejo de manuscritos y correcciones musicales.

David Azurza: koordinaketa orokorra, edizio kritikoa, partitura eta testuen digitalizazioa eta zuzenketa / coordinación general, edición crítica, digitalización y revisión de partituras y textos.

Agari Pablo: diseinu grafikoa / diseño gráfico.

Andoni Salamero eta Iñaki Bastarrika: abesti-testuen itzulpenak / traducción de los textos cantables.

Amaia Garmendia: Sorozabal eta musika korala-ren itzulpena / traducción de Sorozábal y la música coral al euskera.

Réné Zugarramurdi: frantsesera itzulpena / traducción al francés.

Laguntzaile bereziak / Colaboradores especiales



Federación
Alavesa
de Coros



Arabako
Abesbatzen
Elkartea

Beste laguntzaileak / otros colaboradores

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

KUTXA
FUNDA
ZIOA

Presentación de la edición crítica
de la música coral de

PABLO SOROZABAL

en musika koralaren
edizio kritikoaren aurkezpena

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartaren ekimenez, Pablo Sorozabalen musika koralaren edizio kritikoa jarri zen abian 2020an.

Hainbat urtez lan handia egin da: eskuizkribuak erkatu eta zuzenketak egin ondoren, liburu hau aurkezten da gaur. Koru mistorako, ahots berdinen korurako eta ahots baxuen korurako 40 bat lan biltzen ditu, bai a capella bai akonpainamendu instrumentalarekin. Egia da ezin dela esan bere obra koral osoa jasotzen duenik, orkestra-laguntza duten obrak ez baitaude hemen sartuta, baina bai esan dezakegu edizio honekin euskal abesbatzen munduak Sorozabal maisuarekin zuen zorra kitatzen dela.

Oso ohikoak eta interpretatuak diren bere obra batzuk izan ezik, gure abesbatzek korurako corpus gehiena, askoz gutxiago ezagutzen dute eta ez da inoiz edizio bakar batean bildu, ezta sakon aztertu ere.

Mario Lerena doktorearen lan zorrotzaren ondorioz eta Pablo Sorozabali buruz eta haren obrari buruz duen ezagutza sakona eskaini eta gero, harro sentitzen garen edizio kritiko hau aurkezterakoan.

Gainera, gaur bi aldiz zoriontsu sentitzen gara aurkezpen hau KEA Vocal Ensemblerekin partekatuko dugulako. Azken horrek, Enrique Azurzaren zuzendaritzapean, Pablo Sorozabalen musika koral grabatzeko proiektua bultzatu du, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartaren finantzazioarekin.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Sorozabal familiari bere laguntza eskergagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiari aleak inprimatzeko finantzazioagatik, gure probintzietako federazioei proiektu honi emandako zabalkundeagatik eta Tolosako Lehiaketari gune hau interesik gabe eskaintzen digulako.

A iniciativa de la Confederación de Coros del País Vasco se puso en marcha en 2020 la edición crítica de las partituras corales de Pablo Sorozabal.

Tras varios años de intenso trabajo, cotejo de los diferentes manuscritos y correcciones se presenta hoy este libro que recoge unas 40 obras corales para coro mixto, coro de voces iguales y de voces graves, tanto a capella como con acompañamiento instrumental. Es cierto que no se puede decir que sea su obra coral completa, ya que los coros con acompañamiento orquestal no están aquí incluidos, pero sí podemos afirmar que con esta edición se salda una deuda que el mundo coral vasco tenía con el maestro Sorozabal.

Salvo algunas de sus obras, muy habituales e interpretadas, el resto de su corpus coral, mucho menos conocido por nuestros coros, nunca se había reunido en una sola edición, ni estudiado en profundidad.

Ha sido una meticulosa y dedicada labor del Dr. Mario Lerena quien ha aportado su profundo conocimiento de Pablo Sorozabal y su obra para poder presentar esta edición crítica de la que nos sentimos orgullosos.

Además, hoy somos doblemente felices de que esta presentación sea compartida con KEA Vocal Ensemble, quien bajo la dirección de Enrique Azurza ha llevado a cabo la tarea, no menos ardua, de impulsar el proyecto de la grabación de la música coral de Pablo Sorozabal con la financiación de la Confederación de Coros del País Vasco.

Por último, sólo me queda agradecer a la familia Sorozabal por su inestimable ayuda, a la Diputación Foral de Gipuzkoa por la financiación para la impresión de los ejemplares, a nuestras federaciones provinciales por su apoyo a este proyecto y al Certamen de Tolosa que nos brinda este espacio desinteresadamente.

Eva Ugalde,

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko presidentea.
Presidenta de la Confederación de Coros del País Vasco

Info gehiagorako / Más información
www.eae.eus

Larunbata / sábado
Iglesia San Frantzisko Eliza
19:00

kontzertu bereziak
conciertos especiales

16



Sofia Vokalensemble

SUEDIA / Stockholm

36



Bengt Ollén

Bengt Ollének Stockholmen sortu zuen Sofia Vokalensemble abesbatza, eta oraindik orain bera da taldearen zuzendari artistikoa. Bere emanaldietako ezaugarri nagusia da abesbatza-soinu suediarra, hau da, soinu goxo eta liriko bat, eta nazioarteko eszenan ezagun egin da bere taula gaineko presentziatik.


Bach, Poulenc, Pärt eta Schnittke konpositoreen musika ohikoa da bere egitarauetan. Halaber, hainbat obra orijinal estreinatu ditu, besteak beste musikari hauenak: Jaakko Mäntyjärvi, Fredrik Sixten, Jacob Mühlrad, Sven-David Sandström, Matthew Peterson eta Karin Rehnqvist. Sofia Vokalensemble abesbatzak bere jardunaren oinarritzat ditu musikarekiko maitasuna, bikaintasunaren bilaketa eta zuzendariarekiko harreman hurbila, beti bihotzetik abiatuta, izan entsegu arrunt batean, bidaia batean, lehiaketa batean edo eszenatoki atzean. Eta jakina, elkarren ondoan taula gainean.

Bengt Ollén sortzaile eta zuzendari musikalak Gösta Ohlin eta Gunnar Eriksson maisuekin egin zituen bere ikasketak Göteborgeko Musika eta Drama Akademian. 1981az geroztik, hainbat koro arrakastatsu sortu ditu eta lanean jarraitu du bere gaitasunak hobetzeko. Ollén maiz deitzen dute lehiaketetako epaimahaikide, jaialdi, tailer nahiz kontzertuetako zuzendari eta musika irakasle lanetan aritzeko, bai Suedian bertan eta baita ere nazioartean. 1994 eta 2018 urteen artean kantu koraleko irakasle izan zen bigarren hezkuntzako Stockholms Musikgymnasium eskola ezagunean. Bere abesbatzek arrakasta handia izan dute mundu osoko hainbat lehiaketatan.

El Sofia Vokalensemble fue fundado en Estocolmo por Bengt Ollén, quien sigue siendo su comprometido director artístico. Las actuaciones se caracterizan por el famoso sonido coral sueco, cálido y lírico, y una presencia en el escenario que ha llevado al conjunto a sobresalir en la escena internacional.

La música de Bach, Poulenc, Pärt y Schnittke son habituales en sus programas. Han estrenado también, por nombrar algunos, obra original de Jaakko Mäntyjärvi, Fredrik Sixten, Jacob Mühlrad, Sven-David Sandström, Matthew Peterson y Karin Rehnqvist. Sofia Vokalensemble se caracteriza por su gran amor por la música, por la búsqueda de la excelencia y por la cercana interacción con su director, siempre con mucho corazón, sin importar si la ocasión es un ensayo regular, un viaje a un lugar, una competición o tras el escenario. Y, por supuesto, juntos en el escenario.

Bengt Ollén, su fundador y director musical, estudió con Gösta Ohlin y Gunnar Eriksson en la Academia de Música y Drama de Gotemburgo. Desde 1981 ha fundado varios coros exitosos y ha perfeccionado aún más sus habilidades. Ollén es solicitado habitualmente como jurado en concursos, director en festivales, talleres y conciertos, tanto a nivel nacional como internacional y también como profesor de dirección. Entre los años 1994 y 2018 fue profesor de canto coral en la conocida escuela secundaria Stockholms Musikgymnasium. Sus conjuntos corales han tenido un gran éxito en concursos de todo el mundo.



Kanon Pokajanen (1997) **Arvo Pärt** abesbatza-lanik garrantzitsuenetako bat da, eta bere tintinnabuli estiloaren adierazpen gorenaren artean dago. Ahots mistoko abesbatza baterako a cappella idatzia, eta gutxi gorabehera laurogeita hamar minutuko iraupena duena, Koloniako katedralaren 750. urteurrena ospatzeko enkarguz sortu zen. Lanak eliza ortodoxoko tradizioko **Gure Jaun Jesu Kristori Damu-Kanona** musikatzen du, eslavieraz idatzitako testua eta haren egitura fideltasunez jarraitzen du.




Musikaren ikuspegitik, **Kanon Pokajanen** obra idazkera soila eta sakontasun espiritual handikoa da; melodia xumeetan, harmonia estatikoetan eta isiltasunaren erabilera adierazkorrean oinarritzen da. Bere hizkuntza musikala itxuraz sinplea bada ere, afinazioan, ahotsen orekan eta soinuaren kontrolean zehaztasun handia eskatzen du; horregatik, gaur egungo abesbatza-errepertorioko lanik zorrotzenetako bat da. Pärten hizkuntza konposatzailearen sintesi heldutzat hartua, **Kanon Pokajanen XX. mendearen amaierako** musika sakratuaren erreferentzia nagusietako bat da.

Kanon Pokajanen



Kanon Pokajanen (1997) es una de las obras corales más importantes de **Arvo Pärt** y una de las máximas expresiones de su estilo tintinnabuli. Escrita para coro mixto a cappella y con una duración aproximada de noventa minutos, fue compuesta por encargo para conmemorar el 750º aniversario de la Catedral de Colonia. La obra pone música al **Canon de Arrepentimiento a Nuestro Señor Jesucristo**, un texto de la tradición litúrgica ortodoxa en eslavo eclesiástico, cuya estructura sigue fielmente.

Desde el punto de vista musical, **Kanon Pokajanen** se caracteriza por una escritura de gran austeridad y profundidad espiritual, basada en melodías sencillas, armonías estáticas y un uso muy cuidado del silencio como elemento expresivo. Aunque su lenguaje musical parece simple, exige una gran precisión en la afinación, el equilibrio vocal y el control del sonido, lo que la convierte en una de las obras más complejas del repertorio coral contemporáneo. Considerada una síntesis madura del lenguaje compositivo de Pärt, esta composición ocupa un lugar central dentro de la música sacra de finales del siglo XX.



Pianoan, Zuzendaritza Koralean eta Orkestra-Zuzendaritzan Goi Mailako Musika Kontserbatorioan eta Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) goi mailako tituluduna da. Industria Antolakuntzako Goi Mailako Ingeniaria da.

Oñatiko Ganbara Abesbatzaren zuzendari izan zen 1996 eta 2009 artean eta Espainiako Abesbatza Kantuaren Sari Nagusia eskuratu zuen 2004an. Urte berean Donostiako Orfeoiko harrobiaren zuzendaritza hartu zuen (Orfeoi Txikia eta Gaztea), eta Gazte abesbatzarekin hainbat lehen sari lortu zituen. 2007 eta 2020 artean Donostiako Orfeoiaren zuzendariorde artistiko izan zen, lan pedagogiko zein artistiko handia garatuz. Era berean, Euskal Herriko Gazte Abesbatza zuzendu du hainbat alditan (2016-2019 eta 2023-2025), eta Oviedoko Opera Koruaren zuzendari eta musika-zuzendari laguntzaile izan zen 2020-2021 denboraldian.

2021 eta 2025 artean Espainiako Koru Nazionalaren zuzendariorde izan zen, eta RTVEko Abesbatza nahiz Madrilgo Erkidegoko Abesbatza (ORCAM) bezalako talde profesionalekin aritu da lankidetzan.

2018an Suhar Korua sortu zuen, eta talde honekin bost sari eskuratu zituen 54. Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan (2023), horien artean lehiaketako Sari Nagusia. Gaur egun Bilboko Opera Koruaren zuzendaria da, OLBERen abesbatza titularra.

Es titulado superior en Piano, Dirección Coral y Dirección de Orquesta por el Conservatorio Superior de San Sebastián y el Centro Superior de música del País Vasco, Musikene. Es Ingeniero Superior en Organización Industrial.

Fue director de Oñatiko Ganbara Abesbatza entre 1996 y 2009, formación con la que obtuvo el Gran Premio Nacional de Canto Coral en 2004. Ese año asumió la dirección de la cantera del Orfeón Donostiarra (Orfeón Infantil y Juvenil), y al frente de su Coro Juvenil consiguió diversos primeros premios. Entre 2007 y 2020 fue subdirector artístico del Orfeón Donostiarra, desarrollando una intensa labor tanto pedagógica como artística. Ha dirigido asimismo el Coro de Jóvenes del País Vasco en distintas ediciones (2016-2019 y 2023-2025), y fue director del Coro de la Ópera de Oviedo, así como asistente de dirección musical durante la temporada 2020-2021.

Entre 2021 y 2025 ocupó el cargo de subdirector del Coro Nacional de España y ha colaborado con formaciones profesionales como el Coro de RTVE y el Coro de la Comunidad de Madrid (ORCAM).

En 2018 fundó Suhar Korua, con el que obtuvo cinco premios en el 54º Certamen Internacional de Tolosa (2023), entre ellos el Gran Premio del certamen. Actualmente es director del Coro de Ópera de Bilbao, coro titular de ABAO.



Esteban URZELAI

EUSKAL HERRIA



Jurgis CĀBULIS

LETONIA

2022az geroztik, Jurgis Cābulis (1992) Kamēr... Gazte Abesbatzaren zuzendari artistikoa eta zuzendari titularra da. Abesbatzaren 35. urteurreneko proiektua zuzendu zuen 2025ean. Proiektu horrek Haydnen sorkuntza oratorioaren interpretazio bat, galako kontzertu bat eta binilozko disko baten argitalpena barne hartu zituen. Disko horretan, egungo taldearekin batera, Kamēr... abesbatzaren zuzendari artistiko ohien interpretazioa jasotzen da.

2023az geroztik, Letoniako Kantu Jaialdiko zuzendari titularra da, eta Cēsis eskualdeko zuzendari titular gisa dihardu. Rigako Katedraleko Abesbatza Eskolako Abesbatza Zuzendaritza Departamentua zuzentzen du eta bertako abesbatza mistoaren zuzendari artistikoa da. Jurgisek 2024ko Letoniako Abesbatza Musikaren Saria jaso zuen Urteko Zuzendari gisa. Kamēr... abesbatzarekin, 2025ean Europako Abesbatza Kantuaren Sari Nagusian eta 2023ko Letoniako Kantu eta Dantza Jaialdiko abesbatzen lehiaketa handian arrakasta izan zuen. Cābulisek Letoniako Musika Sari Nagusia jaso zuen 2021ean, «Amao Omi/The Senseless War» kontzertu-programagatik. Hirugarren saria lortu zuen Jāzeps Vītols Nazioarteko V. Abesbatza Zuzendaritza Lehiaketan (2014), eta Juozas Naujalis Nazioarteko III. Zuzendaritza Lehiaketa irabazi zuen Vilna-n (2017). 2021ean, Eric Ericson Sari ospetsuan final erdira iritsi zen. Riga Ave Sol-eko Ganbera Abesbatza zuzendu zuen 2013tik 2024ra.

Jurgis Cābulis (1992) es director artístico y director titular del Coro Juvenil Kamēr... desde 2022. Dirigió el proyecto del 35º aniversario del coro en 2025, que incluyó una interpretación del oratorio La creación de Haydn, un concierto de gala y el lanzamiento de un disco de vinilo con interpretaciones de los antiguos directores artísticos de Kamēr... junto al conjunto actual.

Desde 2023, es director titular del Festival de la Canción de Letonia y ejerce como director titular de la región de Cēsis. Dirige el Departamento de Dirección Coral de la Escuela Coral de la Catedral de Riga y es director artístico de su coro mixto. Jurgis ha sido galardonado con el Premio de Música Coral de Letonia 2024 como Director del Año. Junto con el coro Kamēr..., triunfó en el Gran Premio Europeo de Canto Coral en 2025 y en el gran concurso

coral del Festival de Canto y Danza de Letonia de 2023. Cābulis recibió el Gran Premio de Música de Letonia en 2021 por el programa de concierto «Amao Omi / The Senseless War». Obtuvo el tercer premio en el V Concurso Internacional de Dirección Coral Jāzeps Vītols (2014) y fue el ganador del III Concurso Internacional de Dirección Juozas Naujalis en Vilna (2017). En 2021, fue semifinalista del prestigioso Premio Eric Ericson. Dirigió el Coro de Cámara de Riga Ave Sol de 2013 a 2024.

Petra Grassi Triesten —kulturen arteko muga eta bidegurutzean— jaio zen eta Italiako gutxiengo esloveniarreko kidea da. Bere belaunaldiko Europako abesbatzen zuzendari garrantzitsuenetako bat da. Sari ugari irabazi ditu abesbatza-zuzendarientzako nazioarteko lehiaketetan, besteak beste, Abesbatza Zuzendaritzako Munduko Lehiaketan (Hong Kong, 2019), «Zvok mojih rok» lehiaketan (Liubliana, 2016), Europako Abesbatza Elkarrekin antolatutako nazioarteko lehiaketan (Turin, 2016) eta «Le mani in suono» lehiaketan (Arezzo, 2015).

VIKRA ganbera-abisbatzaren sortzailea eta zuzendaria da. Abesbatza horrekin «C. A. Seghizzi» Sari Nagusia —Goriziako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa— irabazi zuen eta zuzendari onenaren saria jaso zuen. Gaur egun abesbatza-zuzendaritzako eta konposizioko eskolak ematen ditu Triesteko kontserbatorioan.

2020tik 2022ra bitartean, Italiako Gazte Abesbatzako zuzendarikide izan zen, eta Italiako Gazte Orkestrarekin ere kolaboratu zuen. Esloveniako Abesbatza Filarmonikoko eta Andaluziako Gazte Abesbatzako zuzendari gonbidatua ere izan da.

Liublianako DEKOR Ganbera Abesbatzako ohiko zuzendari gonbidatua da. Abesbatza horrekin Maribor-en Esloveniako «Naša pesem» abesbatza-lehiaketa nazionala eta zuzendari onenaren saria irabazi zituen.

Bere jarduerak artistikoagatik, Esloveniako Errepublikako Kultura Ministerioaren Urrezko Ikurra eta Prešeren Saria jaso ditu, Italiako eta Esloveniako Errepubliketako presidenteen babespean.

Petra Grassi, nacida en Trieste —una zona fronteriza y encrucijada de culturas— y miembro de la minoría eslovena en Italia, es una de las directoras de coros europeas más destacadas de su generación. Ha ganado numerosos premios en concursos internacionales para directores de coro, entre ellos el Concurso Mundial de Dirección Coral (Hong Kong, 2019), el concurso «Zvok mojih rok» (Liubliana, 2016), el concurso internacional organizado por la Asociación Coral Europea (Turín, 2016) y «Le mani in suono» (Arezzo, 2015).

Es fundadora y directora del coro de cámara VIKRA, con el que ganó el 59º Gran Premio «C. A. Seghizzi» —Concurso Coral Internacional de Gorizia—, recibiendo además el premio a la Mejor Directora. Actualmente imparte clases de dirección coral y composición en el Conservatorio de Trieste

Entre 2020 y 2022, ejerció como codirectora del Coro Juvenil Italiano, colaborando también con la Orquesta Juvenil Italiana. También ha sido directora invitada del Coro Filarmónico Esloveno y del Coro Juvenil de Andalucía.

Es directora invitada habitual del Coro de Cámara DEKOR de Liubliana, con el que ganó el concurso coral nacional esloveno «Naša pesem» en Maribor y el premio a la mejor directora.

Por su actividad artística, ha sido galardonada con el Emblema de Oro del Ministerio de Cultura de la República de Eslovenia y con el Premio Prešeren, bajo el patrocinio de los presidentes de las Repúblicas de Italia y Eslovenia.



Petra GRASSI

ITALIA -ESLOVENIA



**Haruko
KUBAWARA**

JAPONIA – JAPÓN

Kontzertu-pianista eta abesbatza-zuzendaria. Japoniako Odawara Haur Abesbatzan abestu zuen 7 urte zituenetik, Taeko Kuwabara bere amaren zuzendaritzapean. Tokioko Nazioarteko Kristau Unibertsitatean abesbatza-musika errenazentistan espezializatu zen, Budapesteko Liszt Musika Akademian pianoa eta abesbatza-musika ikasi zituen bi urtez Hungariako Gobernuaren beka bat lortu ondoren, eta pianoa, klabezina, konposizioa eta pianorako akonpainamendua ikasten jarraitu zuen Londresko Guildhall Musika eta Arte Dramatikoko Eskolan bi urtez.

34 urtez Erresuma Batuan bizi izan ondoren, hilerio Japoniara itzultzen zen Odawarako Haur Abesbatzako, Mulberry Abesbatzako (emakumezkoa) eta Mulberry Ganbera Abesbatzako (mistoa) musika-zuzendari gisa aritzeko 16 urtez (2008-2023). Abesbatza horiek nazioarteko lehiaketa askotan lehen saria lortu zuten, hala nola Takarazuka, Budapest, Arezzo, Praga eta Riva del Gardan.

Harukoren pasioetako bat Japoniako eta munduko abesbatzen gizartearen arteko zubi izatea da. Haren abesbatzek atzerriko lan ugari estreinatu dituzte Japonian; lan horien artean Xabier Sarasolaren eta David Azurzaren euskal konposizioak daude. Japoniako Abesbatzen Elkarte Nazioarteko Batzordeko zuzendaritza-batzordeko kide izan zen 2014 eta 2020 artean.

Pianista de concierto y directora de coro. Cantó en el Coro Infantil de Odawara, en Japón, desde los 7 años, bajo la dirección de su madre, Taeko Kuwabara. Se especializó en música coral renacentista en la Universidad Cristiana Internacional de Tokio, estudió piano y música coral en la Academia de Música Liszt de Budapest tras haber obtenido una beca del Gobierno húngaro durante dos años, y continuó sus estudios de piano, clavecín, composición y acompañamiento al piano en la Escuela de Música y Arte Dramático Guildhall de Londres durante dos años.

Tras haber vivido en el Reino Unido durante 34 años, regresaba a Japón una vez al mes para ejercer como directora musical del Coro Infantil de Odawara, el Coro Mulberry (femenino) y el Coro de Cámara Mulberry (mixto) durante 16 años (2008-2023). Estos coros obtuvieron el primer puesto en numerosos concursos internacionales, como los de Takarazuka, Budapest, Arezzo, Praga y Riva del Garda.

Una de las pasiones de Haruko es servir de puente entre las sociedades corales japonesas y las del resto del mundo. Sus coros han estrenado en Japón numerosas obras extranjeras, entre ellas composiciones vascas de Xabier Sarasola y David Azurza. Fue miembro de la junta directiva del Comité Internacional de la Asociación Coral de Japón entre 2014 y 2020.

Jordan Šrámek The Rose Ensemble (AEB) taldea sortu zuen 1996an, eta bertako zuzendari artistikoa izan zen ia 25 urtez. Antzinako Musikako ahots-interpretazioa eta klabezina ikasi zuen College of St. Scholastica-n. Eskola horrek, 2016an, Giza Zientzietako Doktore (DHL) titulua eman zion. Jordanek abeslari eta musikologo gisa eman dituen 30 urte baino gehiagoren ondorioz, munduko liburutegi eta ikaskuntza- eta ikerketa-zentro garrantzitsuenetako batzuetara hurbildu dute. Hala, hitzaldiak emateko, lehiaketetako epaimahaietan parte hartzeko, tailerrak eta eskola magistralak emateko gonbidapenak jaso ditu mundu osoko unibertsitate, jaialdi eta kongresuetatik. Askotan kontzertu-areto tradizionaletan entzuten ez den abesbatza-musikari buruz egin duen ikerketa zorrotzgatik oso errespetatua da, eta, besteak beste, Polonia eta Bohemia errenazentistetakoa, Erdi Aroko Irlandako, Malta barroko, Suediako eta Mexikoko ahots erreperitorioa sustatu du. Hawaiiko antzinako musikaren inguruan duen ezagutza zabalarari esker, eta oraintsu «The White Lotus» (HBO Max) eta «Lilo & Stitch» (Disney) filmetan agertzen diren The Rose Ensemble taldearen grabazioei esker oso ospetsua egin da.

Familia txekiar batean Estatu Batuetan jaioa, Jordan gaur egun Italian bizi da eta Europan zein Estatu Batuetan karrera aktiboa du.



Jordan ŠRÁMEK

ESTATU BATUAK
ESTADOS UNIDOS

Jordan Šrámek fundó The Rose Ensemble (EE. UU.) en 1996 y ocupó el cargo de director artístico durante casi 25 años. Estudió interpretación vocal de Música Antigua y clavecín en el College of St. Scholastica, que en 2016 le concedió el título de Doctor en Humanidades (DHL). Los más de 30 años de Jordan como cantante y musicólogo le han llevado a algunas de las bibliotecas y centros de aprendizaje e investigación más importantes del mundo, recibiendo invitaciones para impartir conferencias, formar parte de jurados de concursos, talleres y clases magistrales en universidades, festivales y congresos de todo el mundo. Es muy respetado por su meticulosa investigación sobre la música coral que a menudo no se escucha en las salas de conciertos tradicionales, y ha promovido el repertorio vocal de la Polonia y la Bohemia renacentistas, la Irlanda medieval, la Malta barroca, Suecia y México, entre otros. Su erudición en la música antigua de Hawái le ha valido una fama especial, y más recientemente con las grabaciones de The Rose Ensemble incluidas en «The White Lotus» (HBO Max) y «Lilo & Stitch» (Disney).

Nacido en Estados Unidos en el seno de una familia checa, Jordan reside actualmente en Italia y disfruta de una activa carrera tanto en Europa como en Estados Unidos.



**Helene
STUREBORG**

SUEDIA – SUECIA

Helene Stureborgek ibilbide luze eta arrakastatsua du, nazio- zein nazioarte-mailan errekonozimendu garrantzitsuak jasoz. Gustaf Sjökvist, Eric Ericson eta Kjell Ingebretsen irakasleekin ikasi zuen.

1990 eta 2022 artean, Helene Stureborg musika-irakasle eta orkestra-zuzendari aritu zen Stockholms Musikgymnasium-en, eta Suediako Teknologia Errege Institutuko Abesbatza ere zuzendu zuen 1994 eta 2002 artean. 2002an bere gain hartu zuen Stockholms Musikgymnasiums Kammarkör abesbatzaren zuzendari gisa egindako lanak arrakasta handia izan zuen. Bere zuzendaritzapean, abesbatzak lehiaketa ospetsuak irabazi zituen eta nazioarteko ekitaldietan parte hartu zuen.

Urte askoan, Helene Stureborgek abesbatza-zuzendaritzako eskolak eman zituen Stockholmeko Musika Errege Akademian eta hainbat ikastaro Suedian zein atzerrian. Suediako Musika Orkestra Nazionaleko Kontseilu Artistikoko kide izan zen 2014tik 2016ra, eta 2017an Urteko Abesbatza Zuzendari Onenaren saria jaso zuen. 2018ko udan, Gazteen Munduko Abesbatzako bi zuzendarietako bat izan zen udako programan Barne Mongolian eta Txinan.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, Irratiko Abesbatzako Plangintzaren zuzendari kargua hartu zuen, baina nazioarteko enkarguekin jarraitu du, freelance gisa. 2023ko udazkenean, Storkyrkans Kammarkör abesbatza sortu zuen, eta dagoeneko errekonozimendu asko jaso ditu..

Helene Stureborg cuenta con una dilatada y exitosa trayectoria, con importantes reconocimientos tanto a nivel nacional como internacional. Estudió con los profesores Gustaf Sjökvist, Eric Ericson y Kjell Ingebretsen.

Entre 1990 y 2022, Helene Stureborg trabajó como profesora de música y directora de orquesta en la Stockholms Musikgymnasium, y también dirigió el Coro del Real Instituto Sueco de Tecnología entre 1994 y 2002. Su labor como directora del Stockholms Musikgymnasiums Kammarkör, que asumió en 2002, fue todo un éxito. Bajo su dirección, el coro ganó prestigiosos concursos y actuó en eventos internacionales.

El Coro de Cámara de Helene Stureborg se fundó en 2011 por iniciativa de cantantes que anteriormente habían formado parte del Stockholms Musikgymnasiums Kammarkör.

Durante muchos años, Helene Stureborg impartió clases de dirección coral en la Real Academia de Música de Estocolmo y en cursos tanto en Suecia como en el extranjero. Fue miembro del Consejo Artístico de la Orquesta Nacional de Música de Suecia de 2014 a 2016 y en 2017 recibió el premio a la Mejor Directora de Coro del Año. En el verano de 2018, fue una de las dos directoras del Coro Mundial Juvenil durante su programa de verano en Mongolia Interior y China.

A partir del 1 de enero de 2023, ocupará el cargo de Directora de Planificación del Coro de la Radio, pero continuará con sus encargos internacionales como freelance. En otoño de 2023, fundó Storkyrkans Kammarkör, que ya cuenta con un amplio reconocimiento.

Ivan Yohan ahots- eta abesbatza-musikaz interesatzen hasi zen Parahyangango Unibertsitate Katolikoan ikasketak hasi zituenetik, non unibertsitateko abesbatzako kide bihurtu zen.

